

Dabid Anant

EUSKARA TEKNIKARIA

## Hodeiera

**E**uskararen ingurukoak modu nahikoa agonikoan bizi ditugu sarritan, baina bestelakorik ere bada: plazera, atsegina, irribarrea... Eta, areago, gertakari bera modu ezkorrean edo baikorrean ikus dezakegu. Horixe gertatzen zait, konparaziora, Hodeierarekin.

Hodeiera 3 urteko gure seme Hodeiren euskara da. Leitzako gainerako 3 urteko umeen hizkera beretsua, Leitzako euskalkia-edo, baina bereizgarri batekin. Iraganeko aditzak osatzeko sistema propio eta erabat erregularra dauka: orainaldiko aditzari “n”a gehitu, eta segi aurrera. Aditz guztiei, gainera. Analogia horiek ohikoak dira edozein hizkuntzatan, noski, baina gure txikiak erakusten duen sistematikotasuna harrigarria gertatzen zait, ez baitzait inguruan suertatu hainbesteko erregularitasunez jokatzeko duen beste inor.

Zehaztuko dugu, hobeki uler dadin. Horrela egiten ditu iraganeko aditzak Hodeik. “dozo” (duzu) → “dozon” (zenuen). Alegia, orainaldiko forma + “n” (dozo + n). Honatx jasotako batzuk: “daukezo” (daukazu) → “daukezon” (zenuen); “dot” (dut) → “doten” (nuen); “dizot” (dizut) → “dizoten” (nizun); ga (gara) → “gan” (gñen); “zattot” (zaitut) → “zattoten” (zintudan), “zait” → “zaiten” (zitzaidan)...



KARLOS CORBELLA

Hodeik ez du inoiz horrelakorik entzun. Entzuten duena “ziñun”, “ziñauken”, “nun” edo antzekoak dira, baina hala ere erabateko konstantziaz bere sistema propioari eutsi dio. Aditz-formaren batetik ondorioztatu du araua zein den, eta berdín aplikatzen die gainerako guztiei.

Eta zergatik esan dugu arestian gertakari bera aldarte edo jarrera ezberdinez har dezakegula? Bada, aditz horiek entzutean, nire barruko zuzentzaile-errepresoreak tarteka aditzak zuzentzera bultzatzen nau. Gehiengotan, ordea, sufritu baino gehiago gozatu egiten dut Hodeierarekin. Harrigarria eta ederra iruditzen baitzait hiru urteko ume batek aditz berriak erregulariki sortzea, entzuten duena alde batera utzita.

Oso oker ez banago gertaera hau ongi samar ezkontzen da Chomskyren hipotesiekin-eta, alegia, gure dotazio genetikoan badugula, besteak beste, nolabaiteko gramatika. Beste azalpenen bat ere izan lezake Hodeierak, akaso, baina horrek ez dio nire plazer txikiari deus ere kentzen.

ARGIako espazio honetan gure seme-alaben berri lehenago ere eman izan dut. Izan ere, aitortu beharra daukat euskararekin azken urteotan hartzen ari naizen gozatu handienetako bat seme-alaben hizkuntza-jabekuntzak eragin didala, eta gozatu horrek agerbidea aurkitzen du beti handik edo hemendik. ■

« Euskararekin azken urteotan hartzen ari naizen gozatu handienetako bat seme-alaben hizkuntza-jabekuntzak eragin dit, eta gozatu horrek agerbidea aurkitzen du beti handik edo hemendik »

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Ibili gara azken urtetako legean. Kanpamendua ezartzetik etxea alokatzera

dagoen aldea dugu zahartu gaituen denbora, Frantziako Tourrak neurtu lezakeena. Eta aldaketa sakonen artean, koadrilako zenbaiten osasunaren aje berriak daude, nezeserrak farmazia mugikorretan bilakatzeraino. Gosarian txuria tentsioa orekatzeko, eguerdian gorria azido urikoari eusteko, eta urdina azukrea jaisteko, gauekoa, marroi argia, kolesterol gaiztoaren aurkakoa omen. Azalaren lehorrak leuntzeko kremak ere pare bat, begietarako kolirioaren atal bereko. Ontzi bereziak dituzte pilulek, beren txikietan nabarmen botoinez-

## Tourrean

ko txokoetan gordeak, kremak eta kolirioak aldiz kremailezakoan erdiko eremua hartzen dute. Garai bateko mendi ibilaldiak, hiru bat ordukoak, kasu pare bat salbu, ordekazko ordu eta erdiko paseo terapeutikoekin ordezkatu dira hamaitetakoaren aurre-ariketa. Baina badira aldatzen ez diren usadioak, mahaiari dagozkionak. Puntako sukaldari pare bat tartean, urtero harritzen gaituzte beren sormenez, etxea egunero restaurante bilakatuz. Joan urtetan koadrila urritzen doanez, falta ditugunen oroipenek dituzte gure otordu osteak betetzen, gure emozioak azalarazten, gureek ere egingo dutela jakitun. Aurtengo behintzat, hutsunerik gabe joan da. ■